

<p>The Second Book of Little Dragon Mu Mu visits the Netherlands</p>	<p>Mu herensuge txikiaren bigarren liburua Mu Holandan</p>
<p>written by Ann Katherine Isaacs and Robert Wagenaar with illustrations by Ursula Joell Mathers</p>	<p>Ann Katherine Isaacs-ek eta Robert Wagenaar-ek idatzia, Ursula Joell Mathers-en marrazkiz hornitua.</p>
<p>p. 6 After his first visit to Europe, Little Dragon Mu moved to the Netherlands. His mother and father, Ro and Bing, were going to work at the Dragonian Embassy in the Hague, and Mu would start primary school in the fall.</p>	<p>6. or. Europara egin zuen lehenengo bisitaldiaren ondoren, Mu herensuge txikia Holandara joan zen. Bere gurasoak, Ro eta Bing, Herensugerrik Hagan zuen enbaxadan hasiko ziren lanean, eta Mu eskolara hasiko zen udazkenean.</p>
<p>p.8 The dragon family had heard that the Netherlands was a tolerant country where they would feel welcome. Bing wanted to see the windmills and understand how the Dutch make dikes, whereas Ro looked forward to seeing fields of tulips like the ones in Dragonia.</p>	<p>8. or. Herensuge familiak entzuna zuen Holanda herrialde tolerantia zela eta bertan ondo hartuak izango zirelakoan zeuden. Bingek haize-errotak ikusi eta holandarrek dikeak nola egin zituzten jakin nahi zuen. Rok, ordea, Herensugerrin zeuden bezalako tulipa zelaiak ikusi nahi zituen.</p>
<p>p.9 Mu bought a little bag of bulbs at the airport shop in Schiphol.</p>	<p>9. or. Muk erraboil poltsa txiki bat erosi zuen Schipoleko aireportuko dendan.</p>
<p>p.10 Travelling by train from Amsterdam to the Hague Mu looked out the window and was amazed to see a very large ship sailing above the railroad. How could that be?</p>	<p>10. or. Amsterdamdik Hagara trenean zihoazela, Muk leihotik begiratu zuen eta txundituta gelditu zen itsasontzi handi bat trenbidea baino gorago zihoala ikusirik. Nola izan zitekeen hori?</p>
<p>p.11 Bing explained that much of the Netherlands is lower than the level of the sea. Over the centuries the Dutch people have made their country larger by building dikes and pumping the sea water out.</p>	<p>11. or. Bingek azaldu zion Holandako lurralderik gehiena itsas maila baino beherago dagoela. Mendeetan zehar holandarrak herrialdea hedatuz joan direla, dikeak eraikiz eta itsasoko ura kanpora ponpatuz.</p>

<p>p.12</p> <p>Mu's new home was above an Indonesian restaurant. There were several other restaurants and many shops along the street. It was called Lange Poten, which meant 'Long Legs Street'. Mu thought that was funny and laughed at the idea of a street having legs.</p>	<p>12. or.</p> <p>Muren etxe berria jatetxe indonesiar baten gainean zegoen. Beste jatetxe batzuk eta hainbat denda ere bazeuden euren kalean. Lange Poten zuen izena, hau da, 'Hanka-luze kalea'. Muri barregarria iruditu zitzaion izena: kale batek hankak edukitzea ere!.</p>
<p>p.13</p> <p>The Dragons' house had a garden in the back where Mu could play outside on sunny days. But the weather was getting cold, so Mu decided to plant the tulip bulbs in a pot on the windowsill.</p> <p>Little Dragon Mu liked going to school. His schoolmates enjoyed hearing about Dragonia and he learned all about life in the Netherlands.</p>	<p>13. or.</p> <p>Herensugeen etxeak lorategia zeukan atzealdean eta Mu bertan jolasten zen egun eguzkitsuetan. Baina eguraldia hoztuz zihoan eta Muk tulipen erraboilak loreontzi batean landatu eta leihoan jartzea erabaki zuen.</p> <p>Mu herensuge txikiak gogoko zuen eskolara joatea. Ikaskideek ondo pasatzen zuten Herensugerriko kontuak entzuten eta berak Holandako bizimodua ikasten zuen.</p>
<p>p.14</p> <p>In History class, Mu discovered that a long time ago the Netherlands was called the United Provinces. People driven out of other countries because of their religion were allowed to live in Amsterdam. The Dutch conquered lands all over the world, in Surinam, in the Caribbean Sea, in Malesia and Indonesia. In North America they founded New Amsterdam - which later became New York City. They had great sailing boats to carry merchandise and huge war ships too.</p>	<p>14. or.</p> <p>Historiako klasean, Muk jakin zuen antzina Holandak beste izen bat zuela: Probintzia Batuak. Erlijioa dela eta beste herrialde batzuetatik kanporatutako jendea Amsterdamen bizitzen utzi zioten. Holandarrek hainbat lurralde konkistatu zituzten mundu zabalean, Surinamen, Karibeko itsasoan, Malaysian eta Indonesian. Ipar Amerikan New Amsterdam sortu zuten, gerora New York hiria bilakatuko zena. Itsasontzi ederrak zeuzkaten salgaiak garraiatzeko, baita gerra ontzi itzelak ere.</p>

<p>p.16</p> <p>Mu asked where all those lands were now, and why the Dutch needed to build dikes and pump out the sea water if they were so rich and powerful. "Those faraway countries regained their independence long ago", said the teacher, "but many of their people still lived in the Netherlands." Mu could see that his classmates came from different parts of the world. They were of various sizes, shapes and colours. Mu felt right at home.</p>	<p>16. or.</p> <p>Muk galdetu zuen ea non zeuden lur horiek guztiak orain eta ea zergatik eraiki behar zituzten dikeak eta itsasoko ura ponpatu hain aberatsak eta boteretsuak baziren. "Urrutiko herrialde horiek independentzia berreskuratu zuten aspaldi", esan zion irakasleak, "baina bertako jende asko oraindik bizi da Holandan." Orduan Mu konturatu zen bere gelakideak jatorri desberdinetakoak zirela, hainbat tamaina, itxura eta koloretakoak. Mu etxean bezala sentitu zen.</p>
<p>p.19</p> <p>The teacher said that today the Netherlands are devoted to the principles of peace and justice. The Hague is the seat of important international organisations. The class visited the International Court of Justice, called Palace van de vrede or the 'Peace Palace'. People accused of horrible crimes are tried there. To make it fair judges come from all over the world. Mu was impressed.</p>	<p>19. or.</p> <p>Irakasleak esan zuen gaur egun Holanda bake eta justizia printzipioen defendatzaile sutsua dela. Haga nazioarteko erakunde garrantzitsuen egoitza da. Gelakoak Nazioarteko Auzitegia ikustera joan ziren. Palace van de vrede edo "Bakearen Jauregia" du izena. Bertan, krimen ikaragarriak egin dituztenak epaitzen dituzte eta, horretarako, mundu guztiko epaileak etortzen dira. Mu harrituta zegoen.</p>
<p>p.20</p> <p>One day Mu came home from school and found that there was great news. Bing and Ro told him that soon he would have a little sister or brother. Dragon mothers lay big spotted eggs, and Ro showed him hers.</p>	<p>20. or.</p> <p>Egun batean, eskolatik bueltan, Muk berri onak izan zituen etxean. Bingek eta Rok esan zioten laster arrebatxo edo anaiatxo bat edukiko zuela. Herensuge amek arrautza tantodun handiak egiten dituzte eta Rok berea erakutsi zion Muri.</p>

<p>p.21</p> <p>They would have to keep it nice and warm until it hatched. Mu could hardly wait to go to school the next day to tell all his friends. But there was a big problem. How could Ro keep the egg warm while she was working? She could hardly sit on the egg in her office. Ro decided to ask the Hospital if they could put the egg in one of the incubators used to keep infants warm.</p>	<p>21. or.</p> <p>Epeletan eduki beharko zuten txita jaio arte. Mu hurrengo eguna noiz helduko irrikaz zegoen lagunei dena kontatzeko. Baina arazo handi bat zegoen. Zelan mantenduko zuen Rok arrautza epeletan lanean zegoen bitartean? Nekez eseriko zen arrautzaren gainean bulegoan. Rok pentsatu zuen ospitalean galdetzea ea ipin zezaketen arrautza haurrak epeletan edukitzeko erabiltzen ziren inkubagailu horietako batean.</p>
<p>p.23</p> <p>The hospital staff scarcely listened to her request. The Director told her that dragon eggs were not allowed in the hospital, especially in incubators which must be kept sterile. "Dutch hospitals are not prepared for dealing with dragon problems," he told them, "wouldn't it be better if you went back to your own country?"</p> <p>Ro took Mu's little clawed hand into her big clawed hand and they started home, worried and disappointed.</p>	<p>23. or.</p> <p>Ospitaleko langileek ez zioten jaramon handirik egin eskariari. Zuzendariak esan zion ospitalean ez zela herensuge arrautzarik onartzen, are gutxiago inkubagailuetan, esteril eduki behar baitziren. "Holandako ospitaleak ez daude prestatuta herensugeen kontuak konpontzeko," esan zien, "ez zenukete hobe izango zuen herrialdera itzultzea?"</p> <p>Rok Muren atzapar eskutxo bere atzapar eskutoan hartu zuen eta etxerantz abiatu ziren kezkatuta eta etsita.</p>
<p>p.24</p> <p>The neighbours on Long Legs Street saw that there was something wrong. Ro explained that she was expecting a little dragon, but that no one at the hospital could help her. The neighbours wanted to help but didn't know what to do either. Ro would have to leave her job. She would sit on the egg. But even so, would it be warm enough in the winter climate?</p>	<p>24. or.</p> <p>Hanka-luze kaleko auzokoak zerbait txarto zebilela konturatu ziren. Rok azaldu zien herensuge kume bat itxaroten zegoela, baina ospitalean ezin ziotela lagundu. Auzokoek lagundu egin nahi zioten baina haiek ere ez zekiten zer egin. Rok lana utzi beharko zuen eta arrautzaren gainean eseri. Hala ere, nahikoa berotasun izango ote zuen neguan?</p>

<p>p.25 Mu told his friends about the egg and about his fear that it wouldn't be able to hatch. (xxxxx 4 kids names) were shocked that no one knew how to help.</p>	<p>25. or. Muk arrautzaren ingurukoak kontatu zizkien adiskideei eta txita ez ote zen jaioko beldur zela. Tessa, Friso, Femke eta Hugo zur eta lur gelditu ziren inork ez zekiela zelan lagundu entzutean.</p>
<p>p.27 The next day, everyone brought an electric blanket from home. After school the whole class went to Mu's house on Long Legs Street. They built a special nest for Ro's egg in the living room and their teacher helped them to test the thermostats.</p>	<p>27. or. Biharamunean, denek ekarri zuten manta elektriko bana etxetik. Eskolaren ostean, gelako guztiak joan ziren Muren etxera. Habia berezi bat egin zuten egongelan Roren arrautza ipintzeko eta irakasleak termostatoak probatzen lagundu zien.</p>
<p>p.28 Every afternoon the children hurried home with Mu to see how the egg was doing. Outside it was freezing cold and when Saint Nicolas day came, Mu received a pair of ice skates so that he could skate on the frozen canals. There were no boats going up and down them now.</p>	<p>28. or. Arratsaldero haurrak arineketan joaten ziren etxera Murekin, arrautza nola zegoen ikustera. Kanpoan hotz ikaragarria egiten zuen eta San Nikolas eguna heldu zenean, Muk patinak jaso zituen kanal izoztuetan irristatzeko. Orain ez zebilen ontzirik kanaletan gora eta behera.</p>
<p>p.30 Slowly the weather got warmer and then, one day Tessa, Friso, Femke, Hugo and Mu saw a tiny crack in the eggshell. Everyone crowded around to watch. The crack grew larger and larger. The egg was hatching! What a surprise! The next moment Mu realised that he had a little brother...</p>	<p>30. or. Egunak joan egunak etorri eguraldia epelduz joan zen eta, egun batean, Tessa, Friso, Femke, Hugo eta Mu lagunek arrakala txikitxo bat ikusi zuten arrautzaren oskolean. Denak inguratu ziren ikustera. Arrakala gero eta handiagoa zen. Txita arrautzatik atera nahian zebilen! Hura bai ezustea! Muk berehala ikusi zuen anaiatxo bat zeukala...</p>
<p>p.31 ... and a little sister too!</p>	<p>31. or. ... eta arrebatxo bat ere bai.</p>

<p>p.32</p> <p>There was a big celebration in Long Legs Street for Ling and Ko. The neighbours all came, and some of them were even doctors and nurses from the hospital. The happiest of all - besides Bing and Ro - were Mu and his friends. They had had a very good idea and proved that the Netherlands is a place of solidarity and tolerance - for dragons too.</p>	<p>32. or.</p> <p>Festa handia egin zuten Hanka-luze kalean Lingen eta Koren jaiotza ospatzeko. Auzoko guztiak etorri ziren, eta haietako batzuk ospitaleko sendagileak eta erizainak ziren. Mu eta beraren lagunak zeuden pozen - Bing eta Ro ere bai, noski-. Ideia bikaina eduki zuten eta Holanda elkartasun eta tolerantzia tokia dela erakutsi zuten, baita herensugeekiko ere.</p>
<p>p.33</p> <p>Mu's tulips were blooming now, and he showed them to Ling and Ko.</p>	<p>33. or.</p> <p>Muren tulipak loratzen hasiak ziren, eta Muk Lingi eta Kori erakutsi zizkien.</p>
<p>p.34</p> <p>How long do you think the dragon family stayed in the Hague? Where did they go next?</p>	<p>34. or.</p> <p>Zenbat denbora uste duzu gelditu zela herensuge familia Hagan? Nora joan ziren gero?</p>
<p>p.35</p> <p>To your country? Or did they stay for a while on Long Legs Street?</p>	<p>35. or.</p> <p>Zure herrira? Ala Hanka-luze kalean geratu ziren denboraldi baterako?</p>